

1. Pilota-klub batean, administrazio-izapide edo tramite hauetako zein egin behar da Eusko Jaurlaritzako elkartean erregistroan?
 - a) Pilota-kluba eratzea, desegitea, azkentzea eta likidatzea.
 - b) Hauteskundeetako emaitzak jakinaraztea eta batzarrean egiten diren aldaketak jakinaraztea.
 - c) Estatutuak aldatzea eta egokitzea.
 - d) **Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.**

2. Zein erakunde eta sailtara jo behar da pilota-klub baten IFK eta BEZaren salbuespen-ziurtagiria eskatzeko?
 - a) Eusko Jaurlaritza, IZENPE.
 - b) Gobernuaren Ordezkaritza, Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika.
 - c) **Foru-aldundia, Ogasun Saila.**
 - d) Erantzun horietako bat ere ez.

3. Administrazio-izapide batzuk online egiteko, sinadura digitala behar da. Pilota-klubak zer erakundetan eskura dezake sinadura horren ziurtagiria?
 - a) Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika.
 - b) Izenpe.
 - c) **a) eta b)**
 - d) Bankua edo aurrezki-kutxa.

4. Pilota-klubari zertarako gomendatzen zaio banku-kontu agerikoa edukitzea?
 - a) Ordainketak egiteko.
 - b) Kontabilitatea argi eta erraz eramateko.
 - c) Kobrantzak jasotzeko.
 - d) **Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.**

5. Begiraleak kontratatzerakoan, kontratazio hori egin al dezake zuzenean pilota-klubak?
 - a) **Bai, baina gomendagarriena da izapideak beste erakunde batzuen esku uztea.**
 - b) Inoiz ez; lan-aholkularitza baten bidez egin behar da.
 - c) Ezinezkoa da; zerbitzu-enpresa baten bidez egin behar da
 - d) Erantzun horietako bat ere ez.

6. Pilota-klubak zer izan behar du kontuan lanean hasi aurretik, berez dagozkion eskubide, betebeharrak eta erantzukizunetan babestuta egon nahi badu?
 - a) Datu pertsonalen babesa

- b) Komunikazioak bidaltzea, eta irudi-eskubideak
 - c) Kuotak helbideratzea
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
7. Kontu egin pilota-klubak gauza batzuk pilota-eskolarekin batera egin nahi dituela (entrenamenduak eta astean behin txapelketa bat); derrigor jo behar al du foru-aldundira eta eskola-kirolerako hango atalean alta eman?
- a) Lehiatzeko asmoa baldin badute besterik ez.
 - b) Bai, edozein jarduera egiteko.
 - c) Ez, entrenatzeko bakarrik ez da beharrezkoa.
 - d) Erantzun horietako bat ere ez.
8. Pilota-klubak zer onura lortzen ditu, erabakitzen baldin badu foru-aldundiaren eskola-kanpainan parte hartzea (erakunde parte-hartzaile modura)?
- a) Dena delako jarduerarako dirulaguntza jasotzea
 - b) Entrenamenduak foru-aseguruen babespean edukiko ditu.
 - c) Dagokion federazioak antolatutako lehiaketa ofizialetan parte hartzeko aukera.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

PRAKTIKA

- Ea aurkitzen eta erregistratzen dituzun erakunde hauen web-estekak eta helbide elektronikoak:
 - Elkarteen Erregistroa (Eusko Jurlaritzarena).
 - Dagokizun foru-aldundiko kirol-zerbitzua.
 - Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika.
- Aurkitu erakunde hauen web-estekak, eta, urratsez urrats, hitzordua eskatu:
 - Hurbilen dagoen IZENPE bulegoa, izapideak egiteko.
 - Foru Ogasunaren Ordezkaritza.
- Jarraian, bi erakunde mota dituzu. Identifikatu zer izen duten zure udalerrian daudenek, eta haiekin nola kontaktatu.
 - Kirol-zerbitzuetako enpresak.
 - Lan-aholkularitza.